


Rock & Rollaren izpiritu askea



Rhumba

Atom Rhumba Bilboko taldeak bere lehenengo diskoa aurkeztu berri du Munster disko etxearekin. Orain dela hilabete gutxi Bilbo Hiria lehiaketako bigarren saria jaso zuen.

mikel lizarralde

Urtebete inguru itxaron behar izan dute, baina, azkenean, Atom Rhumba taldekoek kalean dute beren lehen lan luzea, *Hormonal riot*. 1997ko azaroan grabatu zuten diskoa, baina arrazoi batzuk eta besteak direla eta, Munster disko etxeak orain dela aste gutxi batzuk kaleratu du. «1998 urte hasieran irten behar zuen, baina atzeratzea erabaki zuten. Azkenean urte amaieran atera da», azaldu digu Sergiok, taldean gitarra

batez, abesteaz eta saxoaz arduratzen den kideak.

Atom Rhumbaren has-tapenak ezagutu nahi baditugu, 1995era itzuli behar dugu. Sasoi hartan, Sergiok eta Albertok (bateria eta perkusioa) Yogur taldean jotzen zuten, baina, pixkanaka moteltzen ari zela ikusirik, talde berri bat sortzea erabaki zuten. Beste talde batzuetatik ezagutzen zituzten Jose (baxua) eta Rober (gitarra, ahotsa, organoa eta pianoa) eurenganatu zituzten, eta urte amaierarako abian zen Atom Rhumba. 96ko udan debut diskografikoa egin zuen taldeak single batekin». *No square* eta *Bad record* abestiak biltzen zituen lehen binilo txiki hura Madrilgo Alehop disko etxeak kaleratu zuen, eta taldearen aurkezpen diskografikoa izan zen. Harrezkero beste single bat kaleratu dute, eta orain

dela aste batzuetatik taldearen lehen CDA dugu eskutian: *Hormonal riot*.

Hormonal Riot Bilboko Masmaje estudioetan grabatu zuten astebetean, eta Igor Little Fish izan zuten laguntzailerik, teknikari eta ekoizle. Aspalditik ezagutzen zuten Bilboko musikari eta ekoizlea, eta grabazioa nahi zuten moduan joan zen. «Ez genuen diru askorik, eta berak guk nahi genuen soinua lortu zuen», esan digu Atom Rhumbako kideak. Soinu ilun eta zikin hori da, hain zuzen ere,

Hormonal riot-en ezaugarri nagusienetakoa. Rock & Rollaren tradizioetik abiatuta, bluesak, jazzak, punkak eta beste estilo batzuek tokia dute bere soinuan. «Guk denetarik entzuten dugu, eta alde horretatik ez gaude ezertara itxita. 50eko rock-and-rollak, 60ko garage musikak, punkak, jazzak... guztiak izan du gugan eragina», dio Sergiok. Nahasketa horrek guztiak eta taldeak esperimentatzeko duen berezko joerak — *Con Tura Satana y Damo Suzuki* abestia estudioan bertan Josetxo Anituarekin (Cancer Moon) egindako *free session* batetik sortu zen — eman diote nortasun berezia diskoari. Diskoan badira Tom Waits eta Jon Spencer Blues Explosionen arteko nahasketa batetik sortutako kantutak — *Switch on* —, garage-aren eragina duten beste zenbait — *No shelter* — eta baita blues zingiratsuen gogorarazten duen baten bat ere — *Heart in a trolley* —.

Idea falta Euskal Herrian

Jon Spencerren izena aipatu dugu. Izan ere, sortu zenetik, askotan alderatu dute Atom Rhumbaren musika Pussy Galore ohiarenarekin. Sergioren iritziz, ordea, hori taldeak izan duen eraginetakoa bat besterik ez da: «Kritikariek beti konparatzen gaituzte Jon Spencer Blues Explosionekin, baina hori gure soinua asko murriztea da. Gure erreferentziak eta bereak antzekoak dira».

Atom Rhumbarengan eragin duten musika joerak eta taldeak asko izan dira, eta hori da, hain zuzen ere, Euskal Herrian egiten den musikan Sergiok faltan botatzen duena. Haren iritziz, «talde asko dago, baina gehienak musika jakin bat islatzera mugatzen dira, ez dago ideia askorik». Dena dela, oraindik, tartean behin bada ere, proposamen ausartak azaltzen direla diosku: «El Desvan del macho-k edo Akauzazte-k egiten dutena txalogarria da».

Lehen diskoa kalean izanik, aurrerantzean kontzertuak egitea da Bilboko taldearen asmo nagusia, baina ez dute baztertzen laster batean bigarren disko bat prestatzen hastea; izan ere, aurten bigarren saria eskuratu dute Bilbo Hiria lehiaketan, eta horrek bitarteko gehiagorekin grabatzeko aukera emango dio taldeari.

NEW YORK SKA MOB

- STUBBORN ALL STARS
- SKINNERBOX
- ROCKER T

Sarrera: 800 pta. "LAGUNAK" prezio erdia. 99/01/07 OSTEGUNA 22:00etan

• FITO & FITIPALDIS

Aurresalmenta: 1.000 pta. Takilan: 1.200 pta. "Lagunak" takilakoaren prezio erdia. 99/01/08 OSTIRALA 22:00etan

• LAGUN ARTEAN KANTARI

KANTUAN EGITEKO SAIO IREKIA

Dohako sarrera. 99/01/13 ASTEAZKENA 20:00etan



Fito & Fitipaldis



A PUERTA CERRADA A PUERTA CERRADA



KAFE ANTZOKIA

San Vicente 2

48001 Bilbo

